

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

4302

AGINDUA, 2024ko irailaren 4koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, zeinaren bidez Ogasun eta Finantza Sailean behin-behineko langilea izendatzen baita.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28.1 artikuluan, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 19.1 a) eta 30.3 artikuluetan baita aplikagarria den gainerako araudian ere ezarritako ahalmenez baliatuz, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eman duen txostenarekin bat etorriz, eta horretarako aurrekontu-kreditua dagoenez gero, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Juan Alberdi Alberdi jauna programa eta azterlanetako aholkulari izendatzea Ogasun eta Finantza Sailean; kodea: 5287; dotazioa: 1; maila: zuzendaria.

Bigarrena.– Interesdunak aholkularitza emango dio Ogasun eta Finantza Saileko titularrari.

Hirugarrena.– Interesdunak eskubidea izango du, horretarako legez eskatzen diren baldintzak betetzen baditu, Goren-kargudunen lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 3.1 eta/edo 5.1 artikuluetan jasota dauden aurreikuspenen bat edo guztiak aplika diezazkioten.

Laugarrena.– Izendapen honek 2024ko irailaren 7an izango ditu ekonomia- eta administrazio- ondorioak.

Era berean, Agindu honen bidez ezartzen den zerbitzu-harremana automatikoki amaituta gertuko da konfiantza- edo aholkularitza-eginkizuna ematen dion organoaren titularrak kargua uzten duenean, hargatik eragotzi gabe lehenago ere errebokatu ahal izatea.

Bosgarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio organo honi hilabeteko epean, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 4a.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.